| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA<br><br>2006-02-22 | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL<br><br>22-02-2006 |
| --- | --- | --- |

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.
**Bilera-mota:** Apartekoa.
**Eguna:** 2006-2-22 (asteazkena).
**Ordua:** Hasiera: 19:00 eta bukaera: 19:15.
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**
Juan Ramon Larrañaga Mercero, alkatea.
Jose Luis Herranz Gutierrez, EAko zinegotzia.
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia.
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.
Jose Luis Zabaleta Idigoras, EJko zinegotzia.
Iñaki Mendia Izagirre, atxikigabeko zinegotzia.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EJko zinegotzia.
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, EJko zinegotzia.
Oscar Jose L. Murillo Perez, PSEko zinegotzia.
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Iñaki Sanchez Gastañares, idazkaria.

**Bertaratu ezina adierazi dutenak:**
Jose Luis Cid Delgado, EAko zinegotzia.
Francisco Ramos Rehecho, Talde Mistoko zinegotzia.
Mª Isabel Ugarte Fernandez, PPko zinegotzia.
Gerardo Anton Martin, EBko zinegotzia.

**Aztergaiak:**
1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-01-25eko bilkurari dagokion akta onartzea.
2.- Bidezkoa bada,"Construcciones Mendiola" enpresarekin sinatuko den trukatze-hitzarmena hasiera batean onartzea.
3.- Bidezkoa bada, Artajorran aldizkaria kaleratzen duen taldearekin hitzarmena sinatzeko proposamena onartzea.
4.- Bidezkoa bada, elkarte desberdinekin sinatuta dauden hitzarmenak berritzeko proposamena onartzea.
5.- Bidezkoa bada, landa-bideen ordenantza aldatzeko proposamenaren hasierako onespena.
6.- Eskola-kirolaren ereduari buruzko akordio instituzionalarekin bat egitea

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-01-25eko bilkurari dagokion akta onartzea.**

Aho batez onartu da aipatu akta.

**Organo o Comisión:** Pleno.
**Tipo de Convocatoria:** Extraordinaria.
**Día:** 22-2-2006 (miércoles).
**Hora:** Comienzo: 19:00 y final: 19:15.
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**
Juan Ramón Larrañaga Mercero, alcalde.
José Luis Herranz Gutiérrez, concejal de EA.
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA.
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA.
José Luis Zabaleta Idígoras, concejal de NV.
Iñaki Mendia Izagirre, concejal no adscrito.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, concejal de NV.
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, concejal de NV.
Oscar Jose L. Murillo Perez, concejal de PSE.
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Iñaki Sánchez Gastañares, secretario.

**Personas que han excusado su asistencia:**
Jose Luis Cid Delgado, concejal de EA.
Francisco Ramos Rehecho, concejal del Grupo Mixto.
Mª Isabel Ugarte Fernández, concejal de PP.
Gerardo Anton Martin, concejal de IU.

**Orden del Día:**
1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 25-01-2006.
2.- Aprobación inicial, si procede, del convenio de permuta con Construcciones Mendiola.
3.- Aprobación, si procede, del convenio con Artajorran.
4.- Aprobación, si procede, de la renovación de convenios con diferentes entidades.
5.- Aprobación inicial, si procede, de la modificación de la ordenanza de caminos rurales.
6.- Adhesión al acuerdo institucional sobre el modelo de Deporte Escolar.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 25-01-2006.**

1.- Es aprobada por unanimidad la referida acta.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**2.- Bidezkoa bada, "Construcciones Mendiola" enpresarekin sinatuko den trukatze-hitzarmena hasiera batean onartzea.**

Alkate jaunak gaztetxearen egoera oso txarra dela eta udalerriko musika-taldeak konponbide bat eskatzen ari direla adierazi du eta proposamen hau egoera horri irtenbidea emateko aurkeztu da. Aukera desberdinak aztertu ondoren industria-pabilioia egokitzea aukera aproposena dela pentsatu da. Hori da "Construcciones Mendiola" enpresak egin duen proposamena: 29. areako 7. pabilioia emango lioke Udalari, bertan 15 gela egokituta eta, horren truke, Udalak Itxaropen auzoan duen lursail eraikigarria utziko lioke. Txosten teknikoa aldekoa da, trukatzen diren gaien balioen artean ia alderik ez dagoelako.

Alkate jaunak batzordearen irizpena irakurri du ondoren:

1.- "Construcciones J.C. Mendiola, SA" enpresarekin sinatuko den trukatze-hitzarmen urbanistikoa hasiera batean onartzea.

2.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalketa handia duen egunkari batean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita hamabost (15) eguneko epean aipatu aldaketa jendaurrean agerian jartzea, dagozkion alegazioak aurkez daitezen.

3.- Alegazio edo erreklamaziorik ez baleude, "Construcciones J.C. Mendiola, SA" enpresarekin sinatuko den trukatze-hitzarmen urbanistikoa behin betiko onartu egiten dela ulertuko litzateke.

Segidan Cid zinegotzia sartu da batzar aretoan. Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, PSE alderdiaren abstentzioarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoekin onartu da.

**3.- Bidezkoa bada, Artajorran aldizkaria kaleratzen duen taldearekin hitzarmena sinatzeko proposamena onartzea.**

Arizmendi andreak Artajorran aldizkaria kaleratzen duen taldearekin sinatzea proposatu den hitzarmenaren arabera, urtean aldizkariaren 10 ale kaleratzeko 8.662 €ko dirulaguntza ematea proposatu dela jakinarazi du. Datozen urteetarako diru-laguntza aurrekontuetan jasotakoa izango da.

PSE alderdiaren abstentzioarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoekin onartu

**2.- Aprobación inicial, si procede, del convenio de permuta con Construcciones Mendiola.**

Alkate jaunak gaztetxearen egoera oso txarra dela eta udalerriko musika-taldeak konponbide bat eskatzen ari direla adierazi du eta proposamen hau egoera horri irtenbidea emateko aurkeztu da. Aukera desberdinak aztertu ondoren industria-pabilioia egokitzea aukera aproposena dela pentsatu da. Hori da "Construcciones Mendiola" enpresak egin duen proposamena: 29. areako 7. pabilioia emango lioke Udalari, bertan 15 gela egokituta eta, horren truke, Udalak Itxaropen auzoan duen lursail eraikigarria utziko lioke. Txosten teknikoa aldekoa da, trukatzen diren gaien balioen artean ia alderik ez dagoelako. (Expone el Sr. Alcalde que esta propuesta obedece a la necesidad de dar una solución a los grupos de música del municipio ante la mala situación de los locales del gaztetxe. Analizadas diversas opciones se entiende como más idónea la posibilidad de habilitar un pabellón industrial. Es ésa la propuesta que hace Construcciones Mendiola, que cedería al Ayuntamiento el pabellón nº 7 del área 29, acondicionado con 15 locales, y el Ayuntamiento le cedería una parcela en Itxaropen con su edificabilidad. El informe técnico es favorable a la permuta al no haber prácticamente diferencia en el valor de lo permutado).

El Sr. Alcalde da lectura al dictamen de Comisión:

1.- Aprobar inicialmente el convenio urbanístico de permuta con "Construcciones J.C. Mendiola, SA".

2.- Someter el citado convenio a información pública, por espacio de quince (15) días mediante la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia, a los efectos de que puedan formularse las oportunas alegaciones.

3.- En el caso de no existir reclamación o alegación, se entiende que el convenio urbanístico de permuta con "Construcciones J.C. Mendiola, SA" queda aprobada definitivamente.

Se produce la incorporación del concejal Sr. Cid.

Sometido a votación obtiene la abstención del



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

egin da proposamena.

**4.- Bidezkoa bada, elkarte desberdinekin sinatuta dauden hitzarmenak berritzeko proposamena onartzea.**

Arizmendi andreak kultur elkarte desberdinekin sinatuta dauden hitzarmenak berritu beharra dagoela adierazi du. Elkarte horiek zeintzuk diren eta bakoitzari hitzarmen berriekin dagokien diru-laguntza azaldu du.

Azalpen horren ondoren aho batez onartu da proposamena.

**5.- Bidezkoa bada, landa-bideen ordenantza aldatzeko proposamenaren hasierako onespena.**

Ordenantzak indarra hartu duenean zertxobait aldatu beharra dagoela ikusi dela jakinarazi du Alkate jaunak. Hori dela-eta, eskerrak eman nahi dizkie ordenantzaren kontrola egiteko interesatuek agertu duten gogoa; horri esker, bi alderdiren arten batzorde bat osatu da. Aldatzea eskatu den puntu bat honako hau izan da: 100 estereo arteko enbor-ateratzeari dagokion tasa ordaintzetik salbuestea. Proposamena egokia eta bidezkoa dela ikusi da eta gaurko Osoko Bilkurara ekarri da onartua izan dadin.

Azalpenaren ondoren aho batez onartu da proposamena.

**6.- Eskola-kirolaren ereduari buruzko akordio instituzionalarekin bat egitea.**

Iraeta jaunak joan den 2004ko abenduan ikasleen kongresuan onartu zen eskola-kirolari buruzko adierazpenaren xehetasunak azaldu ditu. Kirol Saila aipatu adierazpenaren alde egin du eta irakurri ondoren, Osoko bilkurak onar dezala eskatu du.

Aho batez onartu da proposamena.

Alkateak, arratsaldeko zazpirak eta laurden direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

grupo PSE y el voto favorable del resto de corporativos por lo que resulta aprobado.

**3.- Aprobación, si procede, del convenio con Artajorran**.

Arizmendi andreak Artajorran aldizkaria kaleratzen duen taldearekin sinatzea proposatu den hitzarmenaren arabera, urtean aldizkariaren 10 ale kaleratzeko 8.662 €ko dirulaguntza ematea proposatu dela jakinarazi du. Datozen urteetarako diru-laguntza aurrekontuetan jasotakoa izango da (Expone la Sra. Arizmendi que el convenio que se presenta promueve una subvención de 8.662 € para la impresión y posterior distribución gratuita de 10 ejemplares de la revista. Para años posteriores la subvención se condiciona a los Presupuestos).

Con la abstención del PSE y el voto favorable del resto de corporativos es aprobado el convenio.

**4.- Aprobación, si procede, de la renovación de convenios con diferentes entidades.**

Arizmendi andreak kultur elkarte desberdinekin sinatuta dauden hitzarmenak berritu beharra dagoela adierazi du. Elkarte horiek zeintzuk diren eta bakoitzari hitzarmen berriekin dagokien diru-laguntza azaldu du.
(Expone la Sra. Arizmendi la necesidad de renovar algunos convenios con diferentes entidades culturales. Va dando cuenta de las entidades a las que afecta y de las subvenciones que resultan de los nuevos convenios).

Tras esta explicación es aprobada la propuesta por unanimidad.

**5.- Aprobación inicial, si procede, de la modificación de la ordenanza de caminos rurales.**

Ordenantzak indarra hartu duenean zertxobait aldatu beharra dagoela ikusi dela jakinarazi du Alkate jaunak. Hori dela-eta, eskerrak eman nahi dizkie ordenantzaren kontrola egiteko interesatuek agertu duten gogoa; horri esker, bi alderdiren arten batzorde bat osatu da. Aldatzea eskatu den puntu bat honako hau izan da: 100 estereo arteko enbor-ateratzeari dagokion tasa ordaintzetik salbuestea. Proposamena egokia eta bidezkoa dela ikusi da eta gaurko Osoko Bilkurara ekarri da onartua izan dadin.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

(Expone el Sr. Alcalde que tras la entrada en vigor de la ordenanza se ha detectado algún aspecto que convendría modificar. En este sentido quiere agradecer la disposición de los más afectados por la norma para que haya un correcto control en su aplicación, habiéndose creado una comisión entre ambas partes. Uno de los puntos que se solicitó su modificación fue la posibilidad de dejar exenta de la tasa la extracción de 100 estéreos en clareo. Se ha visto oportuna y procedente la propuesta y es la que se trae para su aprobación).

Tras esta explicación es aprobada la propuesta por unanimidad.

**6.- Adhesión al acuerdo institucional sobre el modelo de Deporte Escolar.**

El Sr. Iraeta expone los pormenores del manifiesto sobre el deporte escolar que fue aprobado en el congreso de escolares de diciembre de 2004. Da lectura al manifiesto al que se ha adherido el Departamento de Deportes municipal y propone al Pleno su aprobación.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

El alcalde levanta la sesión, siendo las diecinueve horas y quince minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

| | |
|---|---|
| Iñaki Sánchez Gastañares<br>Idazkaria | Juan Ramón Larrañaga Mercero<br>Alkatea |



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria Enparantza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net